

Berdintasuna izango dute oinarrian martxoaren 8ko ekitaldiek

Beasaingo Udalak egitarau oparoa prestatu du martxoaren 8aren bueltan. Emakumeen Nazioarteko Eguna da martxoaren 8a, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oinarri hartuta antolatuta ditu ekintzak. Hiru ekitaldi eta hiru ikastaro prestatu ditu, hilaren 5ean, osteguna, hasi eta hilaren 28ra arte, larunbata.

Maria Morales idazleak liburua aurkeztuko du eta Zipriztin taldeak antzerkia egingo du. Musika eta bertsolaritza uztartuz saioa ere egingo dute, baina Gizonduz erakundearekin batera antolatutako ikastaroak izango dira ekitaldi berezianak.

Ikastaro tailerrak izango dira, eta batez ere gizonezkoei zuzenduta egongo dira: kirolariei eta kirol elkarteei, gazteei eta gurasoei edo guraso izan nahi dutenei. Ikastarotetan izena eman nahi dutenek 943 08 76 63 telefonora deitu edo berdintasun@beasain.eus helbidera idatzi behar dute martxoaren 16a baino lehen. Ikastaroak euskaraz izango dira eta guxtienez 15 pertsona egon beharko dira




talde bakoitzean. Hitzaldi tailerretarako hartzaindegi zerbitzua ere jarriko du udalak. Zerbitzua erabili ahal izateko bost egun aurretik egin behar da eskaera.

El Ayuntamiento de Beasain ha elaborado una serie de actividades dirigidas al 8 de marzo, Día Internacional de la Mujer. Serán tres actos y tres talleres formativos. Los talleres estarán dirigidos

sobre todo a los hombres: deportistas, jóvenes y padres.

Todo el que quiera participar en la formación, deberá inscribirse antes del 16 de marzo, llamando al teléfono 943 08 76 63 o escribiendo a berdintasun@beasain.eus. En cada taller será necesario un mínimo de 15 personas. Además, todo el que quiera podrá pedir el servicio de guardería así como el servicio de traducción, presentando la solicitud con cinco días de antelación.



Berdin gehiago da; eman pausoa!

> Ekitaldiak - Actos

> **Martxoak 5, osteguna.** Liburu aurkezpena. **Presentación del libro.** 'La consciencia del tiempo' (Maria Morales). 19:00etan, Igartzan.

> **Martxoak 17, asteartea.** Antzerkia. **Teatro.** 'Macho-Maris' (Zipriztintzen). 19:30ean, Igartzan.

> **Martxoak 28, larunbata.** Bertsolariak. **Bersolaris.** 'Ez da kasualitaea'. Uxue Alberdi, Alaia Martin, Onintza Enbeita, Ane Labaka. Gai jartzailera Amaia Agirre. 22:30ean, Usurbe antzokian.

> Ikastaroak - Talleres

> **Martxoak 23, astelehena.** 'Maskulinitasuna, berdintasuna eta kirol jarduerak'. 18:00-22:00. Igartzan. Kirol elkarteei eta kirolariei zuzenduta. **Dirigido a las asociaciones deportivas y a deportistas.**

> **Martxoak 27, ostirala.** 'Maskulinitasuna, gazteria eta berdintasuna'. 17:00-21:00. Gazteei zuzenduta. **Dirigido a jóvenes.**

> **Martxoak 28, larunbata.** 'Aitatasun arduratsu eta berdintasunezkoak'. 09:30-13:30. Igartzan. Gurasoentzat eta guraso izan nahi dutenentzat. **Para padres y futuros padres.**

Elkarbizitza sustatzeko plana egingo du Udalak herritarrekin

Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza sustatzeko plana egin nahi du Beasaingo Udalak, eta plan horren oinarriak adosteko eta ezartzeko, parte hartze prozesua egingo du herritarrekin eta herriko eragileekin. Udalak herriko elkarbizitzan eragin nahi du, herriko eta herritarren aniztasuna aukera eta aberastasun gisa ulertuta.

Helburu orokor hori lortzeko, helburu zehatzago batzuk zehaztu ditu Udalak: kohesio soziala lantzea eta bultzatzea, herriko eragileak eta herritarrak aniztasunaren inguruan sentsibilizatzea eta aniztasuna aukera gisa uler dezaten bultzatzea, aniztasunaren inguruko ildoak identifikatzea eta herritarrak horretarako sentsibilizatzea, talde eragile bat sortzea eta gatazkak ekiditeko elkar ulertze espazioak sortzea.

Helburu horiek lortzeko, hiru saio antolatuko ditu Udalak, eta saio horietara zuzenean gonbidatuko ditu Beasaingo eragile ezberdinak: Bategite, Berdintasun Foroa, Asmube, ikastetxeak, gaztegunea, ludoteka, gaztetxea...



El Ayuntamiento de Beasain quiere fomentar la convivencia y la pluralidad cultural de Beasain, para lo cual elaborará un proceso de participación con la ayuda de distintos sectores de la población. En tres sesiones se marcarán las bases de ese proceso, el cual servirá para impulsar la convivencia, entendida como motor para la diversidad en Beasain.

Para cumplir dicho objetivo general, se marcarán otros específicos, como por ejemplo: impulsar la cohesión social, sensibilizar a la población y a las asociaciones en torno a la diversidad y hacer ver esta diversidad como algo positivo, crear un grupo de trabajo inductor y un espacio dedicado al entendimiento. Para todo ello, se invitará a distintas asociaciones y grupos de Beasain para participar en las sesiones organizadas.

• Saioak / Sesiones

Bi orduko saioak izango dira, 18:00-20:00, Udaletxeko batzar aretoan:

Martxoak 31: Gaia kokatu eta ulertu: herrian dagoen aniztasuna onartu, aniztasunak ematen dituen aukerak ezagutu, pertzepzioak azalatu eta topikoak gainditzeko hasi. Gaiaren inguruko lehen hausnarketa egingo da.

Apirilak 14: Elkarbizitzarako akordioak landu eta adostu.

Apirilak 21: Elkarbizitza planerako ildo nagusiak adostu.

Sesiones de dos horas, 18:00-20:00, en el salón de plenos del Ayuntamiento:

31 de marzo: Enmarcar y entender el tema: afrontar la diversidad de Beasain, conocer las opciones que ofrece y empezar a superar los tópicos.

14 de abril: Elaborar y establecer acuerdos para la convivencia.

21 de abril: Marcar las principales líneas de trabajo.

Musikari goierritarrak lehiaketara

Beasaingo udal euskaltegiak lehiaketa bat jarri du martxan, martxoaren 8a aitzakia hartuta. Aurreko urteetan hartutako biderei jarraituz, eta bere ekarpen xumea egin nahian, aurtengo musika munduan murgiltzeko proposamena egin du, arlo horretan Goierriko eta Euskal Herriko emakume euskaldunek jorratutako bidea hobeto ezagutzeko. Emakumeen ekarpena eta ahalegina ikusaraztea lortu nahi dute.

Hala, otsailaren 24an hasi eta martxoaren 3ra arte hainbat galdera ari da plaza-ratzen herritarren parte hartzea eskatuz.



Egun tarte horretan, Goierriko emakume musikari baten inguruko hiru pista

eman ditu egunero. Musikarien izenak asmatzen dituztenen artean zozketa egingo dute eta martxoaren 5ean, ostegunean, sari ematea Udal Euskaltegian bertan izango da, 10:30ean. Ekitaldi horretan, solasaldi bat izango dugu eta bertan Arantxa Gastesik, Garazi Zabaletak eta Sara Zufiaurrek parte hartuko dute.

Eguneroko hiru pista udal euskaltegiaren blogean, Udalaren webgunean edo euskaltegiako facebookean kontsulta daitezke. Erantzunak, berriz, udal euskaltegiaren bertan utzi daitezke edo emailaz bidali daitezke.

Gazte lokalen erabilera zehazteko udal ordenantza adostu dute

Besaingo Udalak osatu du dagoneko herrian dauden gazte lokalak kudeatzeko udal ordenantza. Martxoaren 5ean, osteguna, egingo duten udalbatzan aurreikusten da ordenantza onartzea. Helburua, lokalen erabilera arautzea izan da, gazteen, lokalen jabeen eta bizilagunen iritzia kontuan hartuta. Alde guztien adostasunarekin osatu da udal ordenantza, alde guztiek «jarrera konstruktiboa» izan dutelako. Udal ordenantzarekin «joko marko bat» adostu da, eta behin onartzen denean, nahi duenarentzat eskuragarri egongo da. Udal ordenantzan garrantzia berezia eman zaio lokal berraren segurtasunari eta higienerari, eta era berean, «helburu nagusia alde guztien arteko bizikidetzaren egoki bat lortzea ere» izan da. Gazte lokal bat zer den eta zein funtzio izan behar duen zehaztu da, eta asialdira eta sozializatoria bideratuta egon behar dela adostu da. «Lagunekin egoteko lekuak dira».



El Ayuntamiento de Beasain ya ha elaborado la ordenanza municipal para los locales juveniles, la cual se prevee aprobar en el pleno a celebrar el 5 de marzo. Con la ordenanza se pretende regular el uso de dichos locales, teniendo en cuenta todas las partes implicadas.

La ordenanza pretende dibujar un

marco de actuación donde se pone en valor la seguridad de los locales, y además poder asegurar la convivencia de todas las partes implicadas.

Con la ordenanza se ha definido que los locales juveniles deben estar dirigidos al ocio y a la socialización, ya que son espacios «para estar con amigos y amigas».

Trakzio mekanikodun ibilgailuak

Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga ordaintzeko epea martxoaren 31ra arte ezarri du Beasaingo Udalak.

El plazo para pagar el impuesto sobre vehículos de tracción mecánica establecido por el Ayuntamiento termina el 31 de marzo.

Antzizargo teknifikazio zentroa hilaren 18an inauguratuko dute

Herri kirolen teknifikazio zentroko lanak ia amaituta daude eta inaugurazio ekitaldia martxoaren 18an egingo dute. Herri kirolak sustatzeko helburua du Antzizar kiroldegian egokitu den gune berriak. Herriarrek eta inguruko herrietako biztanleek erabili ahalko dute, eta baita, eskola kirolean dabilzanek.

El centro de tecnificación para el deporte rural que se ha acondicionado en el polideportivo Antzizar será inaugurado el 18 de marzo. El nuevo espacio estará dirigido a toda persona que quiera practicar el deporte rural, también al deporte escolar.

Igartza, zerbitzuei zuzenduta

Goiekik, Beasaingo Udalak eta Igartza Monumentu Multzoa kudeatzen duen Aldabe enpresak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Igartza Multzoko zerbitzuak herriko merkatarien eta industriaren eskura jarriko dituzte, elkarlanaren bidez multzoren erabilera areagotu eta merkatariek eta enpresek bestelako zerbitzuak erabili ahal izateko. Merkatariekin ere bildu da dagoeneko Udala hitzarmenaz hitz egiteko.

Goieki, el Ayuntamiento de Beasain y Aldabe, la empresa que gestiona el Conjunto Monumental de Igartza han firmado un convenio de colaboración, con el cual se pretende aumentar el uso del conjunto y ofrecer distintos servicios a comerciantes y empresas de Beasain y la comarca.





•• El alma de Korrika son las comisiones que se crean en cada pueblo; sin esas comisiones sería muy difícil organizar la Korrika ••

Hasi al zarete ekitaldiak antolatzen?

Herriko batzordea ari da bilerak egiten eta bertan ari gara ekitaldiak zehazten. Orain Korrika Lagun egiteko aukera dago martxoaren 9ra arte eta herriko dendetara eta enpresetara joango gara. Kilometro salmenta ere martxan dago eta Korrika 18ko datuak gainditzea da helburua –24 eragilek erosi zuten orduan kilometroa Beasainen–. Gainera, koan batzordean zehazten ari gara antolatuko diren ekintzak.

Noiz bilduko da berriz batzordea?

Hurrengo bilera martxoaren 3an, asteartean, egingo dugu, udaletxeko bilera gelan, 18:00etan.

Zein ekitaldi antolatu dituzue Beasainen martxoaren 22ra bitartean?

Martxoaren 18ra bitartean Korrikako argazki erakusketa egongo da Usturbeko erakusketa aretoan –talderen batek bisita egin nahiko balu AEKren euskaltegiara deitu behar du–. Martxoaren 11n, berriz, Morau abeslariak Euskal Kantagintzaren Historia azalduko du Igarizan, 10:00etan, Korrika Kulturalaren barruan; eta herriko ikastetxeekin batera Korrika Txikia ere egingo dugu. Eguna zehazten ari gara, baina Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin egingo dugu, seguruenik goiz batean.

Eskualdeko afaririk ba al dago aurten?

Korrika egiten den bakoitzean egiten da, eta aurten Ordizian izango da. Bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu diegu Beasaingo elkartei ere. Afariko lehen eta bigarren platerak prestatu behar dituzte. Martxoaren 18an da.

Korrikaren egunerako ere antolatuko zenuzuten ekintzak Beasainen, ezta?

Arratsaldean hasiko gara giroa berotzen. Umeentzako ekintzak egongo dira eta mokadutxo bat janez, musikak languduta egingo diogu harrera Korrikari.

Korrika 19, badator!

«Herrietako batzordeak dira Korrikaren arima; beraiek gabe zaila litzateke Korrika egitea»

Alaitz Imaz y Amaia Auzmendi son las responsables de Korrika 19, acto en favor del euskara que impulsa AEK. En esta ocasión la Korrika llegará a Beasain la noche del 22 de marzo. AEK ya ha empezado a preparar los actos previos a la Korrika con la ayuda de los miembros de la comisión creada en Beasain.

Martxoaren 22an gauean iritsiko da Korrika 19 Beasaina. Ordizia aldetik sartu eta Lazkao alderako bidean agurtuko dugu aurten AEKren bultzadarekin sortutako euskararen aldeko ekitaldia. Beasaingo Korrika batzordea ia lanean ari da martxoaren 22rako zein aurreko egunetarako ekintzak antolatzen. Alaitz Imaz eta Amaia Auzmendi dira aurten go koordinatzaileak.

Zein ibilbide egingo du Korrika 19k Beasainen martxoaren 22ko gauean?

Ezkiaga auzotik sartuko da, Ordizia aldetik, eta handik San Inazio kalera egingo du. Oriamendi kalea igarota Peategi kalean –futbol zelaiaren ondoan– ezkerre hartu eta Trenbide kaletik jarraituko du. Nafarroa Etorbidea eta Kale Nagusia zeharkatuta Bideluze igaro eta Zaldizurretako biribilgunetik Lazkaora joango da.

Zein orduan dago aurreikusita Korrika 19 Beasaina iristea?

Kalkuluen arabera 00:57an iritsiko da.